

1. istorioa Estibaliz, 42 urte

Bilbon bizi naiz eta administraria naiz enpresa batean. 6 urteko haurra dut, Mikel. Ama-bakarra naiz. Ama duela gutxi hil zait, eta Mikel eta ni bakarrik gaude Bilbon. Lanaldi osoan lan egiten nuen duela gutxira arte. Orain, amaren laguntzarik gabe, murriztu egin behar izan dut lanaldia Mikel zaintzeko; baina diru aldetik oso justu gabiltza.

2. istorioa Jose, 38 urte

Lisboan bizi naiz orain. Herria txiki geratu zitzaidan aspaldi, eta hainbat hiritan probatu eta gero, hemen egin dut habia. Herrian, baziren gustuko nituen mutil batzuk, baina ez nintzen inoiz ausartu hori adieraztera. Erasmus beka bati esker kanpora joan nintzen eta sexualitatearekin nituen mugak gainditu nahian, mutil batekin oheratu nintzen. Hasieran beldur handia izan nuen, baina gustuko izan nuen gero.

3. istorioa Malen, 16 urte

Gasteizen bizi naiz, eta duela gutxi hasi naiz depilatzen. Gelan azkenetarikoa izan naiz. Gurasoei ez zien grazia handirik egin, baina konturatu dira ezin naizela gelako estralurtarra izan.

Mutilak bai ondo bizi direla! Ez dute depilatu beharrik, eta ez daukate hilekorik. Ez dira makillatzen, eta ez dute ilea lixatu beharrik! Puff! Kaka zaharra! Neska izatea tokatu ez zait, ba!

10. istorioa Garazi, 17 urte

Ondarroan bizi den gazte feminista bat naiz. Denbora neraman erabaki hau hartu nahian, eta, azkenean, animatu egin naiz. Uda honetan ez depilatzea erabaki dut. Orain arte 15 egun iraun du nire iraultzak. Kanean denek buelta hartzen dute gona edo fraka laburrak daramatzadanean. Hondartzan jendea begira gelditzen zait, eta parrandan ateratzen naizenean deseroso nago besteen begiradekin.

Ez dut ulertzen. Mutilek bizarra egiten ez dutenean ez da mundua erortzen. Berdintasunean bizi garela? Zeinek dio?

11. istorioa Xabier, 19 urte

Maddi Hernaniko sanjoanetan ezagutu nuen. Txosnetan geundela, hurbildu egin zitzaidan, eta hizketan jardun ondoren, leku lasaiago batera joateko proposatu zidan. Nahiko lotsatia naiz, eta poztu ninduen berak inizatiba hartu izanak.

2 aste pasa ditugu elkarri "whatsappeatzen".

Gaur Maddi koadrilarekin parrandan joan da Lesakako sanferminetara. Nik, telefonoa eskuan, ez diot begirik kentzen *WhatsAppeko* ikonoari. 6 ordu dira Maddik ez duela txintik esan, eta *online* dagoela badakit. Beste batekin ligatuko ote zuen? Zergatik ez du erantzuten?

12. istorioa Esti, 17 urte

Ez zait hilekoa jaitsi azkenengo 2 hilabeteetan, baina hilekoa irregularra dudanez, ez naiz kezkatu. Duela hilabete batzuk, txortan egin nuen kondoirik gabe, baina mutilak ez zuen barnean isuri. Halere, zalantza sortu zait, eta haurdun zauden jakiteko test digital horietakoa erosi eta institutuko komunitan egin dut proba. Baiezkoa eman du. Hamaika ideia nahasi bururatu arren, batzuk argi ditut: ezin diet gurasoei hau kontatu, eta ezin dut umea ekarri.

Eta orain zer? Nola abortatzen da? Oraindik legala da? Noiz? Nola? Eta norekin? Zeini kontatuko diot hau?

4. istorioa

Josu, 14 urte

Burua nahasita daukat. Familia ez dut jasaten. Zergatik tokatu zaizkit niri guraso hauek? Lagunak dira niretzat garrantzitsuena, baina horiek ere berehala kritikatzan naute. Ez ditut mutilen kirolak gustuko. Lodiegi nago? Neskekin gusturago sentitzen naiz, baina horietako bat ere ez naiz. Homosexuala izango ote naiz? Hori diote besteek, "armairutik atera, behingoz!". Penkoak besterik ez dut eramaten etxer, eta? Zertarako balio du ikasteak? Non eta nola bukatzeko?

Desagertu egin nahi dut!

5. istorioa

Maria, 38 urte

Nire lana eta bizitza maite ditut. Madrileran joan nintzen bizitzera ikasketak bukatu bezain pronto. Enpresa garrantzitsu batean egiten dut lan. Ez dut seme-alabarik, ezta ekartzeko asmorik ere. Nire bikote-laguna eta ni oso lanpetuta gaude astean zehar, eta asteburuetan lagunekin ateratzea, antzerkita edo kontzertu batera joatea, hori dugu gustuko.

Enpresari nire denbora guztia eskaini arren, nire lana ez dute baloratzen. Nirekin lanean ibilitakoak egun enpresako bazkide dira edo zuzendaritza-postuetan daude; baina niri ardurak eman arren, ez didate ardura-posturik ematen.

6. istorioa

Pedro, 64 urte

Basaurin bizi den gizon jubilatua bat naiz. Emaztea eta biok orain urte batzuk banandu ginen. Bizitzak leku ezberdinetatik bideratu gaitu azkeneko txanpa honetan.

Orain ikasi dut sukaldean aritzen, garbigailua erabiltzen, fakturak eta etxeko ardurak kudeatzen. Gazte-garaian ez nien seme-alabei egun eskainiko niekeen arretarik eman. Nire garaian, aitzak bizikletan ibiltzen erakusteko edo larunbateko partiduetara eramateko zeuden. Egun, nire bilobak zaintzen ditut: 3 urteko Nahia eskolara laguntzen dut eta urtebete duen Aitzol zaintzen dut goizetan.

Umeez zoriontsu egiten naute.

13. istorioa

Malika, 38 urte

Bi ume ditut eta sexu-langilea naiz, ez dut beste aukerarik. Puta, prostituta, sexu-langilea? Denak berdina dira, hau baita nire ogibidea. Ez naute behartu eta ez naiz inoren morroi; baina beste lan bat edukitzeko aukera izango banu, ez nuke honetan jardungo.

Kalean lan egiten duten beste sexu-langile batzuk ere ezagunak ditut. Ni, behintzat, seguruago bizi naiz jakinda eurak ere inguruan daudela; ezagutzen ditut eta elkarri laguntzen diogu.

14. istorioa

Haizea, 22 urte

Zornotzakoa naiz, baina Donostian bizi naiz, han ari naizelako ikasten. Astean zehar, eguerdian, jantoki batean egiten dut lan eta asteburuetan Zornotzara bueltatzen naiz.

Bollera naiz, lesbiana, homosexuala, eta ez dut hori adierazteko inongo arazorik.

Gustura nago nire sexualitatea bizitzeko erarekin.

Gurasoekin ere zorte handia izan dut, askatasun handienez hezi binaute. A ze pagotxa!

Besteei ez zaiela horrenbeste gustatzen?

Hor konpon!

15. istorioa

Ana, 32 urte

Azkenengo 5 urteetan Zumaian bizi izan naiz nire bikote-lagunak han zuelako pisua erosita. Harreman guztietan bezala, gorabeherak izan ditugu. Hasierako grina, geroko konplizitatea, baita eguneroko tirabirak ere. Azkenaldian, ordea, bolada txar bat baino gehiago izan dugu: egiten nuen guztia kritikatzan zuten, eta haserretzen zenean bizpahiru egunez ez zidan hitzik egiten. Bat-batean, bakarrik ikusi naiz, isolatuta eta txikituta. Ez dit inoiz eskua gainean jarri, baina ez da beharrezkoa izan ni hondoratzeko.

7. istorioa

Bea, 36 urte

Pasaian bizi den brasildar bat naiz. Bi urte daramatzat hemen. Momentu honetan nire lehentasuna lan duin bat topatzea da, baina ez dut horretarako astirik. Nire beharren artean, hizkuntza ikasteko denbora ateratzea dago. Umeak eskolan dauden bitartean lana bilatzen dihardut. Arratsaldeak umekin pasatzen ditut. Ez dut lortu hemengo jendea ezagutzea eta beste brasildarrekin elkartzen naiz jolas-parkean.

8. istorioa

Aner, 4 urte

4 urte ditut. Andoainen bizi naiz eta 2 arreba nagusi ditut. Gaur eskolara joateko arreba baten tutu-gona ederra jantzi dut, koloretako legginsekin batera, gelako lanire eta Leirek bezalaxe. Amak oso polita nagoela esan dit; arrebek, berriz, barre egin didate; baina eguneroko kontua da eurek niri barre egitea.

Eskolara hurbiltzen joan naizen heinean, txikitzen joan naiz besteen barreak eta isekak entzunda. Ez nuen entzuten amak esaten zidana, besteen barreak besterik ez.

2 hilabete geroago, inauterietako eskola-festan, neskek mutil-mozorroa jantzi dute, eta mutilak neska jantzita ibili dira. Mutil guztiek jantzi dituzte gonak.

9. istorioa

Irene, 22 urte

Donostian bizi den gazte transexual bat naiz. Duela urte batzuk ez nuen hitz horren esanahia ulertzen.

16 urterekin izena aldatu nuen, eta Kepatik Irene izatera pasa nintzen. Izen-aldaketarekin nire identitatea eraikitzen hasi nintzen.

Hala ere, beldurtuta nengoen. “Beste izen batekin, ezberdina izatera pasako naiz?”, “Ezberdin ikusiko naute?”, pentsatzen nuen.

16. istorioa

Argia, 18 urte

Deustuko gazte bat naiz eta “Pare” talde feministan hartzen dut parte.

Deustuko jaietan matxismoaren kontrako kanpaina abiatu genuen beste jai-elkarte eta erakunde batzuekin elkarlanean. Azkeneko asteburuan, parrandan geundela, pare bat garagardo gehiegi edanda, eztabaida sutua eduki genuen gazte-talde bateko tipo batek eta biok. Hurrengo egunean, txosnetako paretak margotuta agertu ziren: “Argia feminazi” zioten.

17. istorioa

Unai, 24 urte

2 uda daramatzat Amaiaren atzetik. Lagunak gara institututik, eta solasaldi luzeak izaten ditugu elkartzen garenean; baina berak ez du ezer gehiago nahi nirekin. Pasa den asteburuan koadrillako Mikel etorri zitzaidan Amaiarekin liatuta zegoela kontatzera. Mikel, koadrillako “buenorroa” da: gihartsua, kirolaria, guapoa...

Neskek diote izaera dela garrantzitsuena, baina gero denek Mikelekin nahi dute.

18. istorioa

Maitane, 16 urte

Txantrean bizi naiz, tamalez ez Iruñeko erdigunean, eta asteburuetan, gauean, gehienetan gurasoak etortzen zaizkit bila. Aurtengo auzoko jaietan, bi neska gaztek sexu-erasoa pairatu zuten, eta horrek gure koadrillako neskoi askatasuna murriztea ekarri du. Gurasoak gainean ditugu, eta ondo pentsatzen dugu gauzak egin aurretik; ahal dela bakarrik ez gara joaten inora, eta etengabe otsoa gainean dugula sentitzen dugu. Zein da otsoa, baina? Hau da nire galdera: erasotzailea edo beldurra bera?

